

Euskara funtsezkoa izan da nafarren historian, baina badago besterik. NAVARRORUMek erakusten du, aldi berean, Nafarroa erdigunekoa izan dela euskararen munduan. Nafarren lurraldekoak dira, hain zuzen, Pirinioen hegoaldean euskaraz idatzitako lehen hitzak. Gaur Nafarroa den edo lehen Nafarroa izan den lurraldean ditu euskarak lehen esaldi idatziak, Erdi Aroko testurik luzeenak, lehenbiziko liburu inprimatua, hastapeneko itzulpenak, gramatika eta ortografia bateratzeko lehen saioak... Bai, historian barrena, euskara izan da Nafarroako esentzia kulturala eta Nafarroa izan da, Pirinioen bi aldeetan, euskararen mundua dinamizatu duen ardatza.

No sólo el Euskera ha sido esencial en la historia de los navarros. NAVARRORUM muestra también cómo Navarra ha sido central en el mundo de la lengua vasca. De suelo navarro proceden las primeras palabras en Euskera escritas al sur de los Pirineos. En lo que es hoy o ha sido en el tiempo Navarra tiene la lengua vasca sus primeras frases escritas, sus textos medievales más extensos, su primer libro impreso, sus primeras traducciones, sus primeros intentos por estandarizar sus letras, gramática y ortografía... Sí, a lo largo de la historia, el Euskera ha sido la esencia cultural de Navarra y Navarra ha sido, a los dos lados de los Pirineos, el eje dinamizador del mundo del Euskera.

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

21

IRAILA
SEPTIEMBRE

31


ABENDUA
DICIEMBRE

NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIA
ARCHIVO REAL Y GENERAL DE NAVARRA

Euskararen gaineko
dokumentu nafarren
bi mila urteko ondarea

Dos mil años
de documentos navarros
sobre el euskera

NAVARRORUM



NAVARRORUM ez da euskararen historiari buruzko erakusketa bat. Baina, zernahi gisaz, aurre egiten dio erronka jakin bati: idazki batzuen bidez euskararen aztarna dokumentala agertzea, kontuan izanda ia mila eta bostehun urtean ahozko mintzoa izan zela. Ahozko hizkuntza, idazten ez zena. Erakusketarako, hiru dozena dokumentu hautatu ditugu. Euskarazko agiriez gain, euskarari buruzko agiriak ere badaude tartean. Den-denek badute bereizgarri bat, nafartasuna: Nafarroari buruzkoak, Nafarroan idatziak edo nafarrek eginak dira. Gehienak gure artxibo, museo eta liburutegietatik hartu ditugu, baina badaude Afrikako, Ameriketako eta Europako beste dokumentu zentroetakoak ere.

Guregana iritsi diren euskararen lekukoen bilakaera gogoan izanda, sei gai-multzotan sailkatu dira dokumentuak.

Hizkuntza, bere aztarnan

Lehen multzoak erakusten digun garai historikoa –erromatarren mundua eta Erdi Aroko lehen mendeak– dokumentu idatzi oso gutxiko aldia da gure artean. Orduan, euskara doi-doi ikusten da: inoiz edo behin –guri hemen dagoela esateko behar bezainbestetan– agertzen da baskoi latinizatuek seme-alabei eta jainkoei ematen dizkieten izenetan.

Hizkuntza, izenaren jabe

Etnikoki edo sozialki bestelakoa denaren ikuspegia ageri da: frankoa, arabiarra, erromesa, fraidea mintzo zaigu. Haiek ematen diote lehenik iruindarren eta gero nafarren hizkuntzari izena. Erdi Aroaren gailurrean gaude.

Hizkuntza, idazteko

Hirugarren multzoak islatzen du azkenean euskaraz –herabeki bada ere– idazten deneko aldia. Erdi Aroa amaitzen hasi da. Euskara pergaminora eta paperera iritsi da, beste mintzaira batzuetatik hartutako sinboloen bidez eta, bereaz gain, beste hizkuntza batzuk menderatzen dituzten pertsonen eskutik. Zatitxoak besterik ez dira, baina ikusten uzten digute zer dagoen dokumentazioaren kristal lurrunduaz bestaldean.

Hizkuntza, inprimategian

Eskuizkribu horien ondoren, euskara Errenazimenturantz abiatzen da eta idatziaren munduan sartzen da bete-betean, mintzaira honetan inprimatutako lehen liburuarekin. Olerkiak, itzulpen erlijiosoak edo herri kanta eta, halaber, euskara leku orotan dagoelako aipamenak, horiek guztiak agerrarazten digute, azkenean!, lehen ia ikusezina zen errealitatea, baina betiere hemen egon dena.

Hizkuntza, atzeraka

Bosgarren multzoak hizkuntzen arteko borrokaren lehen emaitzak jasotzen ditu; izan ere, borroka sortzen da monarkia nazionalak “herrialde bat, hizkuntza bat” printzipioarekin eratzen direnean. Administrazioak eta eskolak eraginda, euskara espazio publikoan alboratzen hasten dira eta gure hizkuntza herrixkan, elizan eta familian babesten da. Eta horrela hasten da bere atzerakada soziala eta geografikoa.

Hizkuntza, arrazoiaren eta nazioaren artean

Azken multzoak erakusten du euskara mundu garaikideko prozesu politiko eta kulturetan murgildu dela. Ilustratuen arrazoiak euskara baztertu zuen eta erromantikoen sentimenduak, aitzitik, hura besarkatu. XIX. mendean, gure hizkuntza harrapatuta dago liberalismo uniformizatzailearen eta nazionalismo identitarioaren artean.

NAVARRORUM no es una exposición sobre la historia del Euskera, sino sobre el reflejo documental, escrito, de una lengua que, como la vasca, durante casi milenio y medio permaneció en forma oral. De una lengua que se hablaba, pero que no se escribía. Y lo hace a través de tres docenas de documentos no sólo *en* Euskera, sino también *sobre* el Euskera. Todos ellos tienen en común su navarridad: se refieren a Navarra, están escritos en Navarra o son obra de navarros. En su mayoría provienen de nuestros archivos, museos y bibliotecas, pero también los hay de centros documentales de África, de América y del resto de Europa.

Atendiendo esta evolución en los testimonios de la lengua vasca que han llegado a nosotros, estos documentos han sido agrupados en seis bloques temáticos.

La lengua deja huella

Muestra un momento histórico del que tenemos muy pocos testimonios escritos: el mundo romano y los primeros siglos del medievo. En ellos, la lengua apenas se ve y tan sólo se filtra en contadas ocasiones con los nombres con los que los *vascones* latinizados llaman a sus hijos y a sus dioses.

La lengua tiene nombre

Recoge la mirada del otro étnico o social –el franco, el árabe, el peregrino, el monje-. Son ellos quienes dan nombre a la lengua de los *pamploneses* primero y de los *navarros* después. Estamos ya en la plenitud de la Edad Media.

La lengua se escribe

Refleja el momento en el que el Euskera, tímidamente, por fin se escribe. El medievo encara su final. La lengua vasca llega al pergamino y al papel sirviéndose de los símbolos prestados de otros idiomas y de la mano de personas que, además de la propia, dominan otras lenguas.

La lengua se imprime

Con esos precedentes manuscritos el Euskera se asoma a las luces del Renacimiento e irrumpe en el mundo de lo escrito con el primer libro impreso en esa lengua. Composiciones poéticas, traducciones religiosas o cánticos populares, pero también menciones a su omnipresencia, nos descubren por fin una realidad antes casi invisible, pero que siempre ha estado aquí.

La lengua en retroceso

Recoge los primeros resultados de la pugna de las lenguas que se desencadena con la conformación de las monarquías nacionales bajo el principio de “un país, una lengua”. Empujado por la administración y la escuela, el Euskera comienza a ser marginado del espacio público y se refugia en la aldea, en la iglesia y en la familia. Y así inicia su retroceso social y geográfico.

La lengua entre la razón y la nación

Muestra cómo el Euskera se ve sumido en los procesos políticos y culturales del mundo contemporáneo. Rechazada por la razón de los ilustrados y abrazada por el sentimiento de los románticos, en el siglo XIX la lengua vasca se verá atrapada entre el liberalismo uniformizador y el nacionalismo identitario.